

EH Bilduk eskualdeko eragileekin partekatuko du Aiaraldeko suspertze sozioekonomikorako Ernaberri Plana

Guztira, 30 eragile baino gehiagorekin jarriko da harremanetan eskualdeko bederatzi herriean.

Aiaraldea. 2021-10-25. EH Bilduk eskualdeko eragileekin partekatuko du Aiaraldeko suspertze sozioekonomikorako Ernaberri Plana ekarpenak eta iradokizunak jasotzeko asmoarekin. Guztira, 30 eragile baino gehiagorekin harremanetan jarriko da eskualdeko bederatzi herriean. Tokiko EH Bilduko hautetsi eta kideekin batera, Unai Fdez de Betoño legebiltzarkideak eta Ainhize Solaun eta Nerea Martinez batzarkideek parte hartuko dute bilera horietan. Abendurako amaitu nahi du EH Bilduk kontraste fase hori.

Pasa den uztailean aurkeztu zuen EH Bilduk Ernaberri plana. Orduan, eskualdeko suspertze sozioekonomikoa bultzatzeko zazpi traktore-proiektu jaso zituen. Ondoren, EH Bilduk beste hiru proiektu gehitu zizkion eta Ernaberri plana Eusko Jaurlaritzak Berpiztu Planaren esparruan prestatutako funtsei begira proposamenak egin zituen EH Bilduk. Eusko Jaurlaritzak onartutako 24 milioi euroen aurrean, EH Bilduk 27 milioi euroko inbertsioak proposatu ditu.

Aiaraldea sustatzeko zuzendaritza bateratu bat sortzea; altzairutegiak, galdategiak eta industria traktoreak modernizatzea; lurzoruak eta industria-eraikinak berreskuratzea; turismo jasangarria sustatzea; Nerbioiko parke lineala amaitzea; etxebizitzak birgaitzea eta hiri-guneak birsortzea; sukalde zentraleko sistema bat sortzea, Urduñan haragia transformatzeko zentro bat eta Laudioko hiltegia eguneralatzea, mugikortasunaren elektrifikazioa eta kultura-sektorea bultzatzeko hainbat ekimen dira Ernaberrik jasotzen dituen proiektu horiek.

EH Bildu compartirá con agentes de la comarca Ernaberri, el Plan de Reactivación Socioeconómica de Aiaraldea

En total, se pondrán en contacto con más de 30 agentes en los nueve municipios de la comarca.

Airaldea. 2021-10-25 EH Bildu compartirá con los agentes de la comarca Ernaberri Aiaraldea, el Plan de Reactivación Socioeconómica de la comarca, con el objetivo de recoger aportaciones y sugerencias. En total se pondrán en contacto con más de 30 agentes en los nueve municipios de la comarca. En estas reuniones, junto con cargos públicos y militantes de EH Bildu de la zona, participarán el parlamentario Unai Fdez de Betoño y las junteras Ainhize Solaun y Nerea Martínez. EH Bildu quiere finalizar esta fase de contraste para diciembre.

El pasado mes de julio EH Bildu presentó el plan Ernaberri. Entonces recogió siete proyectos tractores para impulsar la recuperación socioeconómica de la comarca. Después, EH Bildu sumó otros tres proyectos y presentó el plan Ernaberri en el marco del Plan Berpiztu puesto en marcha por el Gobierno vasco para invertir fondos en comarcas desfavorecidas. Frente los 24 millones de euros aprobados por el Gobierno Vasco, EH Bildu propuso inversiones por valor de 27 millones de euros.

La creación de una dirección conjunta para la promoción del Aiaraldea; la modernización de acerías, fundiciones y e industrias tractoras; la recuperación de suelos y edificios industriales; el fomento del turismo sostenible; la finalización del parque lineal del Nervión; la rehabilitación de viviendas y la regeneración de áreas urbanas; la creación de un sistema de cocina central, un centro de transformación de carne en Urduña y la actualización del matadero de Llodio, la electrificación de la movilidad y diversas iniciativas de fomento del sector cultura son las iniciativas presentadas por EH Bildu y recogidas en ese plan.